

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

2026an jai-jarduerak egiteko dirulaguntzen deialdia onartzea

BDNS (Identif.): 907820.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalan aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/conocatoria/907820>).

ZINEGOTZI ORDEZKARIAREN PROPOSAMENA, ALKATE-UDALBURUAREN DEKRETU BIDEZ EBAZTEKO

Alkate-udalburuak 2023ko ekainaren 30ean emandako 1178 Dekretuaren bidez, eskuordetza eman die arloetako zinegotziei. Horiek horrela, zinegotzi ordezkariak jarraian ageri den ebazpena hartzea proposatzen dio alkate-udalburuari:

ZERBITZU UNITATEA: Jaiak.

Esp.: 2026/2349.

Gaia: 2026an jai-jarduerak egiteko dirulaguntzen deialdia onartzea.

Laudio Udaleko Nortasun Arloaren helburuetako bat da elkarte edo erakundeei laguntzea, hain zuzen ere, jai-jarduerak egitea helburu nagusi duten eta horiek udalerrri barruan programatu eta egiten dituzten elkarte edo erakundeei.

Laguntza horiekin bultzatu nahi da jai-garapena udalerrian, bideragarria eginez elkarteek prestatutako hainbat programa eta egitarau gauzatu eta burutu ahal izatea, betiere, udal aurrekontuek dituzten aurrekontu kontsignazio eta xederapenen ondoriozko mugen barruan.

Kontuan hartuta dirulaguntzen udal-ordenantza.

Ikusita Jailetako Zerbitzuko Unitateak egin duen jai-jardueretarako dirulaguntzak emateko 2026. urterako deialdia.

Ikusi da Nortasun Arloaren arduraduna den administrazio orokorreko teknikariaren 2026ko maiatzaren 12ko memoria-txostena.

Ikusirik 2026ko maiatzaren 20an egindako Idazkaritzaren txostena.

Ikusirik 2026ko maiatzaren 21an egindako Kontu-hartzailetzaren txostena. (RC 2026.2-2053).

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 1985/7ko Legearen 21. artikulua emandako ahalmenak erabiliz, alkate-udalburuak hau

EBATZI DU

LEHENENGOA: Alkate-udalburuaren esku uztea espediente hau ebaztea.

Erabaki honen arrazoia da deialdi honetan jasotako dirulaguntzak premiaz izapidetu eta eman behar direla.

BIGARRENA. Onartzea 2026an jai-jarduerak egiteko dirulaguntzen deialdia. Dirulaguntzak norgehiagoka-araubidearen arabera emango dira.

HIRUGARRENA. Onartzea deialdi honetarako bideratutako 42.000,00 euroko gastua. Deialdi honen bitartez (2026. urtea) emandako dirulaguntzen kopuru osoak ezin izango du inoiz ere gainditu indarrean dagoen udal-aurrekontuan aurreikusitako 42.000,00 euroko zenbatekoa.

Zenbateko hori lote barik banatuko da.

LAUGARRENA. Deialdi honen gastua 0403 3381 48119 "Subvención fiestas San Roque" aplikazioaren kontura egotziko da, Laudio Udalak 2026rako duen aurrekontuaren barruan.

BOSGARRENA. Eskabideak hogei egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Pertsona juridikoek egoitza elektronikoen bidez aurkeztu behar dituzte eskabideak, eskabide-orri normalizatua beteta; pertsona fisikoek, aldiz, egoitza elektronikoen bidez edo Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean zehaztutako moduetan.

SEIGARRENA. Deialdi hau Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean (BDNS) eta ALHAOn argitaratuko da. Aurrekoaz gain, udaletxeko iragarki-taulan eta ohiko udal-komunikabideetan ere argitaratuko da.

ZAZPIGARRENA. Ebazpen honen berri ematea egingo den Gobernu Batzordean.

Laudio, 2026ko maiatzaren 15a

Alkate-udalburua

AINIZE GASTAKA MARTINEZ